

Oinarriak

Lehena

Lehiaketa honetan euskalduntzen ari den Altsasuko, edo Sakanako, edozein pertsonak parte hartu dezake. Baita eremu bereko mintzakide programako parte-hartzaileek ere.

Bigarrena

Hiru maila ditu lehiaketak. A mailan 3. urratsera bitarteko ikasleek parte hartu dezakete. B mailan, aldiz, 4. urratsetik gorako ikasle guztiek. C maila lehiaketara aurkeztutako ipuinen audioendako da. Azken bi maila horietan Mintzakideek parte hartu dezakete.

Hirugarrena

A mailan, banaka edo taldeka, egile bakoitzak nahi beste testu aurkez ditzake. B mailan lanak banakoenak eta, gehienez ere, hirukoteena izanen dira. Jakina, euskaraz idatziak. Lanen luzera norberaren esku dago. C mailan aurreko irizpideak gorde behar dira, baina bakarkako lanen kasuan laguntzaileak onartuko dira.

Laugarrena

Lehiaketa aurrera egiteko gutxienez 10 lan aurkeztu beharko dira. Bestela bertan behera geldituko da.

Bosgarrena

Testuak argitaratu gabeak eta jatorrizkoak izanen dira. Beste edozein lehiaketetan saririk jaso gabea izan behar du ipuinak.

Seigarrena

Irainak, sexismoa, arrazakeria, gorrotoa edo bestelako jarrerak sustatzen dituzten lanak ez dira onartuko, ezta oinarrizko eskubideren kontrako edukirik ere.

Zazpigarrena

Altsasuri buruzko erreferentzia(k) sartzeari ezinbestekoa da, paisaiak direla, tokiak direla...

Zortzigarrena

Ipuin bakoitzaren **bi kopi idatzi** eta beste **bat disketean edo cd-an** aurkeztuko dira lehiaketara. Azken euskarri horretan narrazioaren grabaketa gehituko da. Espazio bikoitzean mekanografiatua egon beharko du. Ipuina eta disketea edo cd-a gutunazal itxi baten barruan sarturik eta izenorde batekin, euskaltegian aurkeztuko da. Aipatu gutunazalaren barruan beste gutunazal itxi bat sartuko da eta bertan egileak bere datuak eman beharko ditu: izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta euskara maila edo urratsa.

Bederatzigarrena

Kima, Altsasuko Euskara Taldeak izendatuko du epaimahaia.

Hamargarrena

Hainbat irizpide finkatu dira saritu beharreko testuak aukeratzeko: originaltasuna, sormena, mailari dagokion euskara. Epaimahaiaren epaia apelaezina izanen da. Lanak **maiatzaren 7ra arte aurkeztu daitezke**. Sari banaketa maiatzaren 14an egingen da Iortia kultur gunean.

Hamaikagarrena

Aurkeztutako lanak Kima Euskara Taldearen esku geldituko dira. Publikatzeko aukera gordeko du.

Hamabigarrena

A eta B mailan sari eder bana izanen da: Arkatz liburu-dendan 75 euro gastatzeko txartela. C mailako lanik onenak Kimak emandako saria jasoko du.

Hamahirugarrena

Lehiaketan parte hartzeak berarekin oinarriak onartzea dakar.